

«Denon begi bistan jarri nahi ditut inork ikusi nahi ez dituenak»

Harrigarria badirudi ere Gorbeiaiko Parke Naturalean bildutako zaborren irudiekin osatu du *Zabormila* erakusketa Axi Olano (Beasain, 1966) kazetari eta argazkilaria. Gasteizko Alde Zaharreko Hala Bedi eta Gora tabernetan izan du erakusgai uztailean eta Donostiako Kafe Antzokiko hormetan izango da irail osoan. Ostiko jotako mapamundia dirudien haloia du argazki izar. Pentsa, Greenpeace-k irudi eskubideak eskuratzeko eskaera ere egin dio.

LIERNI ALKORTA

Argazkia: Alex Larretxi

Aurreko erakusketan zenbakiak izan zenituen oinarri. Orain, berriz, zaborra.

Beti ipini izan dut arreta kaletik noala oharkabean pasatzen diren gauzetan. Horregatik, Gasteizko Alde Zaharretik paseatzen hasi nintzen eta ezkaratzetako zenbaki asko bakoitzak gogoak eman zion bezala egindakoak zirela ohartu nintzen, igeltoarekin, pinturarekin, eta abar. Konturatu nintzen oso gauza arruntek batzuetan badutela beren mundutxoa eta zaborrekin ere antzera gertatu zen. Pentsatu nuen pixka bat zirikatzailea ere bazela, izan ere hemen inor ez da arduratzen besteak botatako zaborraz. Horrexegatik, pixka bat zirikatzaile izateko edo, pentsatu nuen oso gai berezia zela eta ume txikiak hartu eta mendira joan nintzen,



Gorbeia. Han bildutakoarekin dago eginda ia erakusketa osoa.

Axolagabekeria dago baina ez da bakarrik botatzen duenaren arazoa, baizik eta albotik pasa eta jasotzen ez duenarena. Kasu honetan zer pentsa emateko jartzen ditut, ez naiz sermoi zalea, "aizu, ez bota zikinkeriak naturara!". Hori aspalditik esanda dago, ez dakienak edo kasurik egiten ez duenak, axola ez diolako da.

Zergatik Gorbeiaiko Parke Naturala?

Gertutasunegatik, nire etxea hantxe ondoan

dagoelako. Ni ez naiz sekula izan mendizalea eta ziurrenik mendizalea izan banintz askoz ere lehenago jabetuko nintzatekeen arazo honetaz. Baina bai ardura ematen didala natura kakazteko grina horrek. Salaketa ere, beraz, bada pixka bat.

Baloiak, fresgakarrien ontziak, fruitu lehorren poltsak... Zein hondakin da mendi aldera doazenek gehien botatzen dutena eta zein zu gehien harritu zaituena?

Gehien aurkitzen direnak patata frijituak, artoak edota pipa poltsak dira, baita fruta sartzeko ontzi gardenak edo ogitartekoa biltzeko zilarrezko papera bolatxo bat eginda. Gauza oso txikiak ere aurkitu izan ditut, erdoildutako amuak... Eta harritu? Gai toxikoak izan dituzten ontziek, sosa kaustikoak esaterako. Eta hori bekatu larria da.

Nahiz eta gauza txikiak izan, nik handitu egiten ditut. Hala Bedi tabernan esaterako, badago soka bat, barrutik goma duena. Ur ilun eta sakonetan egoten diren izaki arraro horietako baten tankera hartu nion eta *gomagarroa* deitu nion, gomazko olagarroa. Horrekin jolasten dut. Batzuetan animalien tankera hartzen diet eta imaginatzen dut natura hainbeste mutatu dela, zabor itxura edukiko dutela animaliek.


Zer da ikusleari helarazi nahi diozuna?

Denon begi bistan jarri nahi ditut inork ikusi nahi ez dituenak. Ingurumenaren aldetik mezua argia da, ez nukeela nahi horiek denak topatu ditudan tokian topatzea. Batek esan zidan, "Baina oso itxura polita ditek. Hori ez duk protesta egiteko modua". Eta esan nion politik baldin badira jar ditzatela euren gaurmahaietan, ez botatzeko belarretara. Eta pixka bat horrekin jolastuz alde batetik salaketa bada baina baita irudiarekin jokatzeko burutazio bat ere.

Zure erakusketak jendearengan ohiko publizitate kanpainak baino eragin gehiago izan dezakeela ere irakurri dut nonbait...

Bai, bateren batek esan du bai. Hori batez ere adituekin hitz eginda ateratako ideia da. Esaten zuten askotan jendeari testuak-eta jarriz egiten ditugula erakusketak, "begira, ontzi horian plastikoa bota behar da...". Paternalista bezala da hori, "izan gaitezen zintzoak eta ez dezagun zikindu natura...". XXI. mendean gaude eta uste dut mezu horrek ez duela funtzionatzen. Orduan pentsatu nuen hori zela bidea. Eta nik ere hori egiten dut, jendearen bistan jartzen ditut ahazturara kondematuta dauden zabor puska horiek. Ematen du naturak irentsi egin

"Batzuetan animalien tankera hartzen diet eta imaginatzen dut natura hainbeste mutatu dela, zabor itxura edukiko dutela animaliek"



Irudietan, *Zabormila* erakusketan ikus daitezkeen zenbait argazki. Besteak beste, *gomagarroa* eta mapamundia.

behar dituela baina naturari asko kostatzen zaio, eta asko kostatzen zaion bitartean nik hartu eta denon bistara ekartzen ditut.

www.blogak.com/zabormila bloga ere sortu duzu. Agian, erakusketa hauetara ez datorren jendearengana iristeko helburuarekin?

Hasieran ez neukan erakusketa egiteko asmorik. Nire lehenengo ideia bloga egitea izan zen. Baina blogean aktibitatea jaisten joaten da eta pena ematen zidan *Zabormilaren* gai hau horrela uztea, argazkiak egiten jarraituko baitut. Gainera, lehenago edo beranduago jendeari erakusteko gogoia sentitzen duzu.

Aurrera begira zein proiektu duzu?

Momentuz honekin jarraituko dut, serie hau handitzen eta ahalik eta leku gehienetara helarazten. Horrez gain, orain EiTBn bi urterako eszedentzia hartu eta ikus-entzunezkoen munduan ere banabil gidoiak idazten eta gauzak egiten, proiektuetan. Niri irudiaren mundua gustatzen zait: sorkuntza bezala irudiarena oso gustagarria dut, bideoan nahiz argazkian.

Iñaki Olano kazetaria zara baina Axi Olano argazkilari-artista ere bai. Pertsona bat eta bi aurpegi?

Ez, pertsona bat eta bi zeregin. Ofizio bat eta afizio bat. Hau afizio izan dut gehiago, gertatzen dena da jendaurrean nire afizioa erakusteko garaian iruditzen zitzaidala aproposagoa zela izena aldatzea, beste modu batera sinatzea. Pertsona berdina naiz, baina ez zitzaidan iruditzen izen berdinarekin bi gauzak ordezkatu nitzakeenik. Hori ere bada pixka bat zirikatzea.

Artea kritika sozialerako bide gisara erabiltzen da askotan. Zuk ere bide hori hautatu duzu oraingoan. Baina, lortzen al du helburu hori?

Ni geroz eta eszeptikoagoa naiz horretan. Bizi garen munduan oso gauza gogorak gertatzen dira eta arteak ez du erraza zirrara eragiteko. Eta gainera, ez luke zertan arteak deigarria izan behar, baina telebistaren munduak-eta horretara garamatza. Eta horrek darama batzuetan artea neurria galtzera.

EiTB bezalako hedabide publiko batean lana egiteak ezartzen dituen mugak gainditzeko modu bat al da zuretzat argazkigintzarena?

Gehiago esango nuke, errutinazko bizitzatik alde egiteko modu bat. Ez bakarrik lan errutinatik: norberaren galderei erantzuteko modu bat da. ■